

# COMPOSTOELAKO BIDEAK,

GIZATERIAREN ONDAREA EUSKAL HERRIAN



"Compostelako  
Jondoni Jakue bideak  
Frantzia" bilduma



Organisation  
des Nations Unies  
pour l'éducation,  
la science et la culture



• Chemins de Saint-Jacques-  
de-Compostelle en France  
inscrits sur la Liste du  
patrimoine mondial en 1998



Agence française  
des chemins  
de Compostelle

 Pays  
Basque  
EUSKAL  
HERRIA

COMMUNAUTÉ  
D'AGGLOMÉRATION  
HIRIGUNE  
ELKARGOA

# COMPOSTELAKO JONDONI JAKUE — BIDEAK FRANTZIAN

**“Frantziako Compostelako Jondoni Jakue bideak”** Gizateriaren Ondare izendatu ziren **1998an**. Horrela, **UNESCOk** onartu zuen beila bide horren balio historiko eta izpiritual handia.

Ontasun horrek **78 osagai biltzen ditu –64 monumentu, 7 monumentu-multzo eta 7 bidexka-zati–10 eskualdetan, 32 departamendutan eta 95 herritan** kokatuak. Erromesaldiaren praktikak eta errituak erakusten dituzte, Jondoni Jakuerenganako debozioak, beste sainduenganakoak, baita ere bidaiaren baldintza fisikoak eta materialak. Erlijio-eraikinak badira, ospitaleak, zubiak eta ate bat, beilarien bidea markatzen dutenak.

Ontasun hori arkitektura eta arte aberastasun handiko bilduma da, Frantzian sailkatu inportanteena. Euskal Herria, mendiaren eta ozeanoaren artean den nortasun kultural handiko lurraldea, Frantziaren eta Iberiar penintsularen artean kokatua den zirkulazio lurraldea, erlijio-kulturaz betea da. Beilariak herri hau zeharkatu dute. Hemen dira bideak berriz asmatu 1960. hamarkadan erudito batzuen bidez eta hizkuntza eta kultura bera dituen populu baten mugaz gaindiko trukadei esker. Erdi Aroko erromesaldia sinbolizatzen duten 78 osagaietarik

4k erlijio-ondare anitzez aberatsagoa eta askotarikoa irudikatzen dute.

Ontasunaren kudeaketa prefet batek koordinatzen du nazio mailan, 78 osagaien jabe diren tokiko eta lurraldeko elkargo guziak biltzen dituen ontasun-batzorde batek lagundurik, bereziki Euskal Hirigune Elkargoak. Frantses Estatua Compostelako Bideen Frantziako Agentziaren gainean bermatzen da, sailkatua den ontasunaren kudeatzailea baita.

Compostelako Bideen Frantziako Agentzia 1990ean sortu zen Compostelako Jondoni Jakue bideen balorizazioaren alde eta lurraldeen zerbitzuko den kulturaturismoaren garapenaren alde. “Frantziako Compostelako Jondoni Jakue bideak” ontasun kulturalaren jabe, kudeatzaile eta eragile sarea animatzen du, kontserbazio, harrera eta balorizazio baldintza hoberenak segurtatzeko kolektiboki.

**Argibide gehiagoren ukaiteko**

[cheminscompostelle-patrimoine-mondial.fr](http://cheminscompostelle-patrimoine-mondial.fr)

**“Compostelako Jondoni Jakue bideak Frantzian” bilduma • Ohiz kanpoko zenbakia**

- Autoreak: Claire Goutines, pertsona hauek idatzi testuetatik abiatuz: Nadia Mabilille, Euskal Elkargoa, Sébastien Pénari, Compostelako Bideen Frantziako Agentzia, Maritxu Etcheverry Arteen historian doktorea, Soazick Le Goff-Duchateau Frantziako Eraikinen arkitektoa, Mano Curutcharry Antzinako obren eta artelanen kontserbatzaile ordezkarria, Paul Mangeret Arteen Historiako ikaslea, Bordele-Montaigne, Agnès Ducat paisaia-antolatzailea Pirinio Atlantikoetako AHIKeane, Robert Elissondo, historialaria, Alain Zuaznabar-Inda, ondarearen arduraduna.
- Araudi grafikoa: Le Passe Muraille - Itzulpena: Joana Pochelu
- Maketa eta ilustrazioak: Madleen Nuret
- Inprimatzea: Copytel paper birziklatuan

- Hedapena kitorik: 2 000 ale • 2023ko uztaila  
- ISBN: 978-2-9534796-9-0 • EAN: 9782953479690

**Azala** © AFCC JJ Gelbart - Ilustrazioa Madleen Nuret  
**Gibelego azala (gainetik beheiti eta ezkerretik eskuinera):**

- Saint-Trophime katedrala Arlesen
- Santa Feko abadia Concasen
- Arüe eta Izura-Azme arteko bide zatia (Pirinio Atlantikoak)
- Santa Maria Magdalenaren basilika Vézelayn
- Amiensko Andredena Maria katedrala
- San Eztebe kolegiata Neuvy-Saint-Sépulchren
- Puy-en-Velayko Andredena Maria katedrala
- Mont-Saint-Michel
- Notre-Dame-en-Vaux, Châlons-en-Champagnen
- Saint-Jacques dorrea Parisen

# ASPALDIKO HARRERA SAREA — DUEN PIRINIOEZ GAINDIKO LURRALDEA



Erdi Aroan lurralde antolaketa ez zen gaur egungoa. Nafarroako Erresumak eskumena zuen Pirinioez gaindiko eremu zabal batean. Eremu horretan XI. mendean hasi zen bidesareak antolatzeke politika eta XII. mendean, biztanleria finkatzeko politika hiri berrien bidez. Zuberoako, Lapurdiko eta Baxenabarreko jaunak eta bizkondeak, egoeraren arabera, Gaskoiniako Dukerriaren meneko ezar zitezkeen.

Euskal Herria ez zen existitzen entitate politiko gisa. Aturriren eta "Basclorum" deitu mendien artean zegoen hego-mendebaldeko eremu zabala zen. Aro Modernoan, "Bascos" (1312) zuen izena, edo Frantzian, "Bascous" (1650). Lurralde eklektikoa zen, eta haren jabe egiteko borrokan ari ziren auzo herrialdeetako gobernantza zibilak eta erlijisioak, Goi Erdi Arotik berregituratze luze batzuk eginik osatu zirenak.

Mintzaira berezi bat mintzo zen bertan, hedadurarik zabalenean, Zesarren Akitaniaraino hitz egiten zena, eta Goi Erdi Aroan, Aragoiko ipar-mendebalderaino eta XI. eta XIII. mendeetan, Pallarseko eta Arango goi-ibarretaraino. Euskara basconea *lingua* deitua zen (1060), baskoien hizkuntza, edo *lingua Navarrorum*, nafarren hizkuntza.

## Compostelako beilaren aitzinekoa den harrera-sarea

Pirinioak beheko gunek batetik baino gehiagotik iragaten ziren Portaleteko eta Garaziko lepoen artean, hala nola Somportetik, non XI. mendean ospitale zaharrenak plantatu ziren. Mendebalderago, Garaziko mendatetik iragaten ziren (1057m), Ibañetako lepotik hain zuzen. Iraganbide horietan erlisione-etxeak eraiki ziren, hala nola Orreagakoa (1132an), priore-etxe eta ospitale sare zabala garatzearekin komunikabideak eta bidaiarien joan-etorriak hobeki kudea baitzitezkeen, baita ere iraganbideak kontrolatu eta arautu.

Baldintza guztiak beteak ziren urruneko edo tokiko beila gara zedin, saildunen eta erlikien kultuak eta ere Jakue apostoluaren hobiarekiko oldeak sustaturik.

# SAINDUEN ETA ERLIKIEN KULTUTIK — TOKIKO ERRITUALETARA

Hastapenean sainduen kultuak, eta gero erlikienak zituen beilariak bideari lotarazi. IV. mendeaz geroztik, sainduen hobietak eta erlikiek ustez zituzten mirakuluzko ahalmenek zituzten erriak eta beilariak martirioen hilobietara buruz joanarazi. Jondoni Jakueren kultuaren historia, zeinaren hobia 830ean “seinalatu” baitzen Galiziako Iriako apezpiku-egoitzatik hurbil, aurkikuntzak batak besteak baino mirakuluzkoagoak diren leku xumeagoen idurikoa da.



Euskal Herrian tokiko saindutegiak bideari lotuak dira. Ez zen kilometro anitz kurritu behar saindu baten barkamena hartzeko. Hainbat elizak erlikia ederrak bazituen eta tokiko erromesaldiak egiten ziren bertara: Zuberoako Santa Grazira, Baionako San Leonera (hiritik kanpo), Uhartehiriko Soihartzera, etab. Erlikiarik

ez zuten beste leku batzuetan ere eguneroko gurtzak edota erritualak egiten ziren, adibidez, Atharratzeko Maidalena kaperan, Uhartehiriko Elizañoan etab. Herrikoiak diren sinesmenak iturriei eta sendatzeko duten ahalmenari lotuak dira, adibidez Barkoxeko *Notre-Dame de Paradis*. Gizon-emazteak uzta txarren kontra zaintzen dituen Jondoni Jakueren kultuak ez du leku handia ukan hemen: Euskal Herriko hamar bat eliza baizik ez da hari eskainia.

## Bidearen deia: botoa ala barkamena?

Zerk pusatzen du beila horren egitera? Batzuek beren baitarik hautatzen zuten partitzea, esperantza beharrez edo ikustatez, beste batzuk bekatariek ziren, eta auzitegiak zituen joatera kondenatu, barkamendua ukaiteko. Bidaiaren iraupena arau-haustearen larritasunaren araberaoa zen.

Hastapeneko botoaren arabera, beilariak bere estatusa egiazkotzen zuen agiria errezibitzen zuen. Abiatzen zen egunean, erritu-zeremonia baten karietara, pordoia eta zakutoa ematen zitzaizkion eta benedizione bat. Joaten ahal ez zirenek bidaia beste baten esku uzten zuten, ordainsari baten truke. Beilari xumeenak oinez ibiltzen ziren eta aberatsenak zaldiz, baina beilariak ez ziren usu bakarrik ibiltzen.

Saindutegi(eta)tik gibelerara itzuli behar baitzen, bidea oraino luzeagoa gertatzen zen, bidaia inizatiko horren azken xedea baitzen. Beilariak berokian edo burukoan lotzeko ikurrak ekartzen zituzten oroigarri eta froga gisa. Beilariak maskorra ekartzen zuten eta Compostela (beilaren frogagiria).

# EUSKAL HERRIAREN ZEHARKATZEA...

*Codex Calixtinusean* Euskal Herria manera pitoreskoan aurkezten da Compostelako Jondoni Jakuerako beilaren kontakizun handian. 1140-1160 inguruan idatzi zen Codex horretako 5. liburua, *Liber Sancti Jacobi* ere deitua, eta Euskal Herriaren zeharkatzea aipatzen du eta Izurako bidegurutzeta, Garaziko lepoaren igatea (Orreagatik hurbil), eta lehenago kokatua den Eiheralarre.

Dokumentu horretan erranaldi batek aipatzen du Erdi Aroan Jondoni Jakue bideek zituzten helburu aniztunak, hala nola, iraganbideak ziren, merkataritza-bideak eta beila-bideak: *“Euskal Herrian, Donjoni Jakue bidea Garaziko mendatea deitu mendi ohargarritik iragaten da, alde batetik Hispaniako atea baita, eta bestetik, mendi horretatik baitira herrialde batetik bestera salgai baliagarriak garraiatzen”*.

Trabak gaintuz (aroaren gorabeherak, bidesariak, ura zeharkatu beharra –zubiak, ibiak, etab.–) ala hala hautaturik, “bidaiariak egunero egiten du bidea”. Badira geldialdi bazterrezinak, hala nola Donapaleu, Izura, Donibane Garazi, XIV. eta XV. mendeetako bidaia eta ibilbide kontakizun gehienetan aipatu hiru hiri berriak, baita ere Irisarri, Larzabale, Monjolose, Baionako kostaldeko ibilbideaz bestalde, Compostelatik itzultzean usu iragaten zena.



Pirinioak bistan © AFCC JJ Gelbart



## Bideen errealitatea

Jakue apostuluaren erlikiak berriz aurkitu zirenean, 1879an egiazkotu eta 1882an Codexeko V. liburua itzuli, aspaldian lo utzia zen beila berpiztu zen. Bideen ibilbidea mapetan gauzatu zen eta aldaera batzuk asmatu. Beilaririk batere ez da ageri Orreagako ospitaleko kontuetan 1820tik goiti, baina Europako Ibilbide Kultural bilakatu (1987) bideari berriz lotu ziren, eta gero Espainiako bidea (1993) eta Frantziako bidea (1998) ezagutu zituen UNESCOk.

Beila batek iraun dezan, aldian aldika berriz asmatu behar da. XX. mende bukaeran, Compostelako erromesaldia berpiztu zen Europa osoan ibilbide franko finkatuz: 82 000 km bide bada Compostelaraino, 130 nazionalitate errezibitzen dituztenak. Unibertatsala da!

# EUSKALDUNEN HARRERA ONA

**Erdi Aroan, 325eko Nizeako I. Kontzilioaz geroztik, ostatus ematea erlijio-biziaren eginbide bat da. Euskal Herriko *hospitale*, *hospitium*, *monasterium* edo *domusen* lehenbiziko aipamenak XII. mende hastapenekoak dira.**

Komunikabide eta iraganbide (zubiak edo lepoak) nagusien inguruetan kokatuak, harrera-lekuetan beilariak hartzen ziren, baina ere pobreak, eriak eta bidaiariak. Bidaiari guziei ostatus ematen zitzairen eta jatera, eriak artatzen ziren, hilak ehorzten, hori dena kitorik.

*Haranbeltzeko kapera* © CAUE64



Barnealdean kokatu Haranbeltzeko San Nikolas kapera salbu, euskal begitarte onaren lekukotasun zaharrenak Pirinioetako bi aldeetako iraganbideei mugatuak ziren, adibidez, Ibañeta (1071), Eiheralarreko San Bikendi edo Santa Grazi.

**Urrikalmen eginbeharrak: erlisione-betebeharraren eta bokazio laikoaren artean**

Harrera-leku horiek egitura mota anitzetakoak izan zitezkeen. Alabaina, harrera noiztenka egin zitezkeen monasterio batean, priore-etxe batean edo etxe soil batean, ospitale batean (gehienetan laikoak, Haranbeltzekoa bezala), priore-ospitale batean (Donapaleuko Lagarraga), laborantzarako erabilia zen enkomienda batean (Irisarri, Apat, Eihalarre, Lekuine, Bidarrai, Urdirarbe...), edo borda batean (Landibarreko Behaune); helburu ekonomikoa zuen aterpetxe batean ere har zitezkeen ostatus (Izurako Ostau) non bidaiari guziak hartzen ziren, aberatsenak barne.

Izurako *Ospitalea* etxean kitorik hartzen ziren pobreak eta eriak, Irizolako lehengo herrian. Arima elizan artatzen zen, eta gorputza ospitalean, gela bakarra izan baitzitezkeen, oherik eta lastorik gabe.

Etxe horiek errazki begiztatzen ziren entseina bati esker, eta boluntario ziren laikoak izan zitezkeen ostaler. Euskal Herrian, donat edo ostaler horiek hiru obedientzia-boto xumek lotzen zituzten: obedientziak, pobrezia eta kastiteak, alargun izanez geroz. *Donat* horiek Utziatoko priore-etxean (Larزابale), Haranbeltzen (Izura), Donaixtin (Ibarre) edo Ainharben (Zuberoa), ospitalearen mantenua bermatzen zuten eta lurren ustiapena XVIII. mendera arte.



## Munduaren eta bazterren ezagutzea

Bidexketan barna ibiliz, beilariak sasoiei erritmoa ematen zien laborantza lan handien lekukoak ziren. Milaka urde, behi eta ardi tropez beteak ziren lehen Leireko monasterioarenak eta Orreagako kolegiatarenak ziren alhagune zabalak. Sagardiak, intxaurrondoak, gaztainondoak, sagarrondoak eta mahastiak ageri ziren han hemenka, baita ere zerealak, sustrai-barazkiak eta lekadunak lantzen ziren lurrak, eguneroko elikadura osatzen zutenak. Eiheren inguruan mugimendua bazen geldi-geldia, zerealak transformatzeko eta pertola-arrantzarako. Sagarnoa, tokiko edari zaharra, erromesen kontakizunetan gehienik aipatzen den edaria da.

Bidaiariak mendiari buru egin behar zion eta mugaz gaindiko lurraldeari. Pirinioak igaiten hasi behar zuen Orreagatik, paisaia oihantsua eta maldatsua zeharkatu.

## Lurraldearen begitarte txarra... ala ulertu ezina?

Hala ere, *Codex Calixtinusaren* autore ezezagunak Euskal Herriaz eta Nafarroaz egiten duen aurkezpena arrunt bortitza da. Bidesaria biltzen zutenek beilariak gaizki erabiltzen zituzten. Euskaldunak gaiztoak

ziren, haien lurra, garratza. Ibaietako ura kaltekorra. *“Garaziko mendate inguruan Euskal Herria dago, Baionako hiri handia barne, itsasbazterrean, iparraldean. Herri hori oihantsua da, ogia, arnoa eta mota orotako janariak eskas dira, baina ordainetan, sagarrak, sagarnoa eta esnea daude”.*

*“Herrialde horretan bidesari biltzaile gaiztoak badira, hala nola Garaziko lepoan, Izura deitu herrian eta Donibane Garazin; deabruetara igortzekoak dira”.* Lerro gogor horietan Codexaren komanditarioek eta idazleek Nafarroako Erresumarekin zituzketen harreman gatazkatsuak ageri dira.

*Codexean* zenbaitetan agertzen den bezala, bidaiariak ulertzen ez zuten euskararekin topo egiten baitzuten da, hain segur, aurkezpen hori oraino zorrotzagoa. Latina jende heziarentzat zen, eta eguneroko inguruan eta baserrialdean mintzaira ezezagun horri lekua uzten zion... Bistan da, beren ibilbide luzean atsedenaldia hartu nahi zuten beilariak harrituak ziren.



### Codexa?

Liburu horretan bada denbora hartan ezagutzen zen euskara-latin hiztegi zaharrena. Lekukotasun biziki interesgarria, beraz, tokiko hizkuntzaren ezagutzeko.

# EUSKAL HERRIAN...

## Compostelako bideak, Gizateriaren Ondarea



**Compostelako bide anitz iragaten da Euskal Herritik, eta egun 4 osagai badira Munduko Ondarean sailkatuak "Compostelako Jondoni Jakue bideak" ontasunaren kariatara.**

### Ospitalepeko eliza

Eliza erromanikoa 1888an sailkatu zen monumentu historiko gisa, dituen eragin hispano-arabiarrengatik. Pirinioetako oinetako bidea markatzen du. (GR®78 bidexka).



### Baionako Andre Maria katedrala

Baiona Handian, estilo gotikoko katedrala eliza erromaniko baten lekuan eraikia da, 1258an sute batek suntsitua. XIII. mendeko kalostira ere badu.

### Donibane Garaziko Jondoni Jakue atea

Jondoni Jakue atea hiriko bost ateen artean ekialdekoena da. Hareharrizko eraikina da, erdi puntuko arku duena. Historikoki ate horretatik sartzen ziren beilariak. Bide guziak Donibane Garazin elkartzen dira ibilbide bakarra bihurtzeko: frantses bidea. Beilariak badakite hortik goiti 30 bat egun beharko dutela Santiago de Compostelara heltzeko, hortik 800 kilometrora.

### Arüe-Ithorrotze-Olhaibi eta Izura-Azme arteko bide zatia

22 km luze da GR®65 bidean dagoen bidexka hori, eta sei herritik iragaten da: Arüe-Ithorrotze-Olhaibi, Lohitzüne-Oihergi, Larribarre-Sorhapürü, Domintxaine-Berroeta, Uhartehiri eta Izura-Azme. Euskal Herriko paisaia mota desberdinak ezagutzeko parada ematen du baita ere ondarearen aberastasunak, adibidez, Olhaibiko, Haranbeltzeko eta Soihartzeko kaperak. Bestalde, beste hiru herrik ere bide zati hori balioan ematen dute: Donapaleuk, Behaskane-Laphizketak eta Ostankoak.



# EUSKAL HERRIA

Jondoni Jakue bideen gurutzean

 Bidexka antolatua

 Monumentuak, multzoak

 Bidexka-zatiak

## BAZAS

Lehengo San Joan  
Bataiatzailearen katedrala

## LA ROMIEU

Saint-Pierre kolegiata

## SAINT-SEVER

Abadia

## SORDE-L'ABBAYE

Saint-Jean abadia

## BAIONA

Andre Maria katedrala

## AIRE-SUR-L'ADOUR

Sainte-Quitterie eliza

## BEAUMONT-SUR-L'OSSE / LARRESSINGLE

Artigues edo  
Lartigues zubia

## AUCH

Sainte-Marie katedrala

## DONIBANE GARAZI

Jondani Jakue atea

## OSPITALEPEA

Saint-Blaise Eliza

## SAINT-BERTRAND- DE-COMMINGS

- Lehengo Notre-Dame katedrala
- Basilika paleogiristinoa / Saint-Julien kapera

## OLOROE-DONAMARIA

Andre Maria katedrala

## VALCABRÈRE

Saint-Just basilika

Lepoeder lepoa  
(1430m)

## OURDIS-COTDOUSSAN

Saint-Jacques eliza

## JÉZEAU

Saint-Laurent eliza

Somporteko  
lepoa  
(1632m)

## GAVARNIE

Saint-Jean-Baptiste  
parrokiako eliza

## AUDRESSEIN

Notre-Dame-de-  
Tramesaygues eliza

## ARAGNOUET

Ospitalea eta Notre-Dame-de-  
l'Assomption kapera,  
Tenplarioen kapera ere deitua

# ERAGIN ARABIARRAK DITUEN


## — Ospitalepeko eliza

**Gaskoinia eta Espainia lotzen zituen Pirinioen bi aldeetatik iragaten zen bidean, XII. mendean, ostatu emateko lehenbiziko etxe bat antolatu zen Ospitalepeko erreka bazterrean.**

Aldarea © AFCC JJ Gelbart



Hastapeneko eliza "Urrikalmen-ospitale" baten ondoan eraiki zen XII. mendearen bigarren partean, Sainte-Christine-du-Somport monasterioaren ekimenez. Apez eta laiko (donat) komunitate ttipi batek bermatzen zuen ostatuaren mantenua eta bidaiarien harrera. Ospitalea bazter utzi zen eta arras desagertu XVII. mende bukaeran. Elizak iraun du ahal gutirekin egin obrei esker. Elizaren inguruan hastapeneko komunitatea emeki-eme ki herri ttipi bilakatu zen.



## Kordobatik jin inspirazioa

Ospitalepeko eliza XII. mende bukaerako estilo erromaniko berantiarrekoa da: pareta lodiek ganga zorrotzak bermatzen dituzte. Biziki berezia da eragin hispano-arabiarreko arkitektura elementuak baititu, Pirinioen iparraldeko bakarrak. Neurri ttipiko eliza da, eta kupularen gainean zentratu plana du, gurutzadura bururatzen duena. Kupula hori elizaren joia da, zortzi adarreko izar bat osatzen duten arku gurutzatuz edertua baita. Mota horretako kupula bakarra da Pirinioen iparraldean, Oloroeko Gurutze Sainduaren elizarekin. Nerbioidun kupula horien jatorrizko modeloa Jerusalemeko Hilobi Sainduaren eliza dela iduri luke (jatorrian mota horretako kupula bazuen) baita ere Kordobako meskita, XII. mendeko Espainia giristinoaren eraikitzaileak inspiratu baitzituen.

Eragin hispano-arabiarra elizako beste leku batzuetan ere ageri da, bederatzi saretak leihoak hesten baitituzte, harrizko dentela itxura dutela. Sortaldeko mashrabiya apaindura iduri dute. Frantzian kontserbatua den saretaren erromaniko multzo handiena da. Absideko irekidura handiek erdi puntuko arkuekin, eraikinaren sortaldeko itxura areagotzen dute.

## Otoitz egin abere taldeak babesteko

Erdi Aro bukaeran eliza San Blasi eskaini zitzaion, armeniar martirioa zena. Sinesmen herrikioen arabera, abere tropak zaintzen zituen eta elizatiarren zintzurreko mina sendatzen. Sainduaren estatua bat ezarri da berriki hegoaldeko kaperan. Urte guzietan, otsail hastapenean, prozesioan eramaten da. Lehen, herritarrak biltzen zituen beila-besta horretan, geriza-errituak egiten ziren. Hazleek beren behien buztanetako ileak mozten zituzten, ezko batekin erretzen, eta kabalentzat otoitz egiten.

Ospitalepeko eliza tokiko saindutegi inportantea zen, eta Erdi Aroan, Pirinioez gaindiko bideetako ekonomia eta giza trukaden lekukotasun garrantzitsua. Duen estilo eta mezu izpiritualagatik, Pirinioen iparraldeko eta hegoaldeko monumentu batzuen iduria da: Oloroeko Gurutze Saindua, Biarnoko Lacommande, Nafarroako Torres del Río eta Gaztelako Almazán.

*Kupula © AFCC JJ Gelbart*



*Ikuspegi orokorra © CAPB / Carole Pro*



### Eliza urteetan barna

Seguraz ere elizan freskoak baziren, denboran egiten zen bezala. Apaindura desagertu da, eta gaur egungo murrutsekin itxura latza ematen diote. XVIII. mendean gehitu erretaula barrokoak forma erromanikoen harmonia nabarmentzen du. Zurezko galeria garai berean eraiki zen. Euskal erlisione-tradizioari jarraikiz, galeria gizonentzat zen eta emazteak behean egoten ziren, familiaren hoberik hurbil.

### Bisita berezia...

Gaur egun, soinu eta argi muntadura bati esker, eraikin zoragarri hori ezagutu eta bisita daiteke.

# BAIONAKO KATEDRALA

## mendeetan eta gerletan barna

**Baionako Andre Maria katedrala Pirinioetako eliza gotiko handienetakoa da. Urteetan barna gaizki erabilia izan da, XIX. mendean berritu zen eta itxura errotik aldatu zitzaion.**

*Jondoni Jakueren estatua © Mano Curutcharry*



### Lau mendeko obrak

Eraikuntzak XIII. mendearen bigarren partetik XVI. mende hastapenera iraun zuen; deanbulatorioa eta kaperak eraiki ziren lehenik. Frantziako iparraldeko katedral handien eragina ikus daiteke: Reimsekoarena absidioloko kaperen irekidura sareengatik eta Soissonsekoarena kaperen eta dagozkien deanbulatorioko lerroen ganga komunengatik. Gurutzadura eta hiru barneko nabea XIII. mende bukaeran edo XIV. mende hastapenean eraikitzen hasi ziren hain segur.

### Armarrri batzuek Ehun Urteetako Gerla erakustera ematen dute

Gurutzadurako gangak XIV. mende hastapenean bururatu ziren eta Erdiko barna mende berean. Beste gangak obrak aitzinatu arau eraiki ziren, ekialdetik mendebaldera, Ingalaterrako Erresumako armarrriak dituzten giltzarriek erakusten duten bezala, eta gero Frantziako Erresumakoak mendebalderago.



XV. mendebaldeko aitzinaldea eraiki zen, Ehun Urteetako Gerlen bukaeran hiria berreskuratu ondoan, 1451n. Hegoaldeko dorrea XV. mendean eraikitzen hasi ziren, baina bukatu gabe egon zen. XVI. mendean globo itxurako kupula gehitu zitzaion.

### Zenbat neurtzen du Baionako katedralak?

80 metro luze da, 33 metro zabal eta 26 metro gora Erdiko barnaren ganga pean. Katedralak neurri zabalak ditu Erdi Aroan Baionak eragin handia baitzuen Espainiaren, Ingalaterraren eta Akitaniaren arteko merkataritza-portu gisa.

## Iraultzaren eta gerlen ondotik

XIX. mende hastapenean, eliza gotikoa egoera txarrean zen kaserna eta biltegi gisa erabili baitzen Iraultza denboran eta Napoleondar Gerletan. Berritze aldi luze bat hasi zen orduan: mendearen lehen erdian zureria berritu zen, teilatuak eta paretak. Gero, Viollet-le-Duc arkitektoaren ikasle izan zen Émile Boeswillwaldek egin obrek katedralaren itxura errotik aldatu zuten. Hegoaldeko dorrea eta mendebaldeko aitzinaldea bururatu zituen, iparraldeko dorrea eraiki eta bietan orratza ezarri. Kalostraren iparraldeko galeria desegin zuen parrokiako kapera eta sakristia berria eraikitzeko, gurutzaduraren aitzinaldea berriz egin zuen estilo erradiatzailean eta iparraldeko apirikua berriz egin zuen. Azkenik, Steinheil aita- seme margolariei apaindura manatu zien kaperetarako eta deanbulatarioarako.

## Jondoni Jakue, fededunen eta Jainkoaren arteko lotura

Katedralean elementu batzuek Jakue Nagusiarenganako debozioa erakusten dute: eskainia zaion kapera bat bada eta irudikatzen duten estatua bat eta margolan bat.

- ◆ Sainduaren estatua hegoaldeko atariko ostikoan ezarri zen (gaur egun sakristian da). XIII. edo XIV. mendekoa da; eta XIX. mendean berritu zen; Jondoni Jakue irudikatzen du beilari-berokiarekin, pordoiarekin eta maskorraz apaindu zakutoarekin.
- ◆ Espainiako Eskolakoa omen den XVII. mendeko margolan batek erakusten du ezaugarri berekin, baina beste postura batean: begiradaz zerua otoitzen du, fededunen eta Jainkoaren arteko ararteko gisa.

*Ikuspegi orokorra © AFCC JJ Gelbart*



## Baiona, arte eta historia hiria

2011z geroztik, Baionak Arte eta Historia labela badu. Prestigiozko label hori Kultura Ministerioak die esleitzen beren ondarea agerian ezartzen duten hiriei eta lurraldeei. Baionako hiriaren ondare eta kultur politika bisitariei eta baionesei zuzendua zaie. Katedrala ezagutzeko eta bisitatzeko parada ematen du bereziki.

# JONDONI JAKUE ATEA

## — Espainiari buruz irekia

**Ezaugarri nagusia da Donibane Garazitik iragaten diren beilari guzientzat, Errobi iragan eta Garaziko bidean kurritu aitzin, ondoko geldialdira buruz: Orreagako kolegiata.**

### Mugako herria mendateen oinetan

Donibane Garazi Errobiren bazterrean kokatua da; XII. mendean eraiki zen, Donazaharreko gotorlekua suntsitua izan ondoren. Erdi Aroan herria bortuz bestaldeko Nafarroako hiriburua zen, Garaziko eta Ibañetako lepoen oinetan. Denboran, Garaziko lepoen bidean zen beilari gehiena kurritzen.

Herria bidaiarien baitezpadako geldialdia zen Pirinioen zeharkatzeko. Pasaia handiko beste herrietan bezala, ordainlekua bazuen, baina beilariek ez zuten ordaindu behar. Bizkitartean, pribilegio hori ez zen beti errespetatua *Codex Calixtinusaren* arabera: Izuran eta Donazaharren beilariak behartuak ziren bide saria biltzen zutenei sari horren ordaintzera, baina gainera, gehiegizko dirua kentzen zitzairen mehatxupean.



### Zitadelaren sortzea

Frantziako eta Espainiako hiri handietarik ber distantzian, Donibane Garazi bidegurutzeko herria da, eta, beraz, gain-gainetik estrategikoa. Horregatik ziren XIII. mendeko harresia eta atea gaztelu-zitadela batez osatu 1620. hamarkadan.

Oraingo Jondoni Jakue atea XVIII. eta XIX. mendeetan eraiki zen. Zitadelako eta Elizako karriketako auzoak inguratzen dituen Erdi Aroko harresiaren parte da, eta herriaren defentsa-sisteman parte hartzen zuen.

*Atea © Euskal Herriko Turismo Bulegoa*



## Aurtikia, lekuz aldatua eta berriz eraikia

Erdi Arotik XVIII. mende bukaera arte, atea 200 metro gorago kokatua zen, Oraingo Jondoni Jakue bidearen eta Zitadelako bidexkaren bidegurutzean. Ateari datxekiola, Jondoni Jakueri eskainia den kapera aterpe gisa erabiltzen zen eta beilariei atsedena eskaintzen zien ondoko ospitalea aitzin.

Ateak *Scalapuria* deitu hiri ingurura ematen zuen, errege-gazteluaren oinetan kokatua. Erdi Aroan ohoinen eta jende baztertuen ziloa omen zen. Beilariak beldur ziren arrobotuak izateaz handik iragatean, bereziki gauaz.

Iraultza denboran ziren kapera eta atea aurtiki, hain segur 1793-1794 inguruan, herrian nahasmendu anitz izan ziren garaian, bereziki Frantziaren eta Espainiaren arteko gerlarengatik. Ate horren oroitzapena atxikitzeko, berriz eraiki zen oraingo kokalekuan. Jatorrizko arku gotikoaren ordez erdi puntuko arku ezarri zen, non oraino ziriharri lerro bat ikus baitaiteke.

## Sinbolo bat Compostelarako bidean

Herriko harresien gisara, Jondoni Jakue atea monumentu historiko sailkatu zen 1986ko abenduaren 2ko erabakiaren bidez. Oztibarrera buruz eta haratago irekia da, iparraldetik hegoalderako iraganbide zaharrera buruz, eta orain beilari guzientzat Pirinioen iragatearen sinboloa da.

Errobi Donibane Garazin © AFCC JJ Gelbart



Ibai-erreka sarearen bidez ozeanora joan baitaiteke, eta beila-bidea eta merkataritza-bidea baita, Donibane Garazik garrantzia geografiko handia du. Gaur oraino, zitadelak urte guzietan 100 nazionalitate baino gehiagoko 50 000 bat beilari hartzen ditu. Frantziako geldialdi jendetsuena da Compostelako bideetan gandi.

## Donibane Garazi "Frantziako herri ederrena" gisa sailkatua da

Egun, Donibane Garaziko herriak, Kulturaren Eskualdeko Zuzendaritzaren eta Euskal Hirigune Elkargoaren sustenguekin, ondarearen zaintzeko eta balioan ezartzeko proiektu handia abian ezarri du Ondare Gune Ohargarri bat gauzatz.

# ARÜE-ITHORROTZE-OLHAIBI ETA IZURA- IZURAAZME ARTEKO BIDEXKA, bistalekua Pirinioen gainera

**Jondoni Jakue bidea 22 kilometroz doa muino berdeen, pentzeen eta haritz-oihanen artean. Uraren firfirak beilariak laguntzen ditu Izura-Azmeraino, Compostelarako geldialdi ezin huts egina den herriraino.**

Arüe-Ithorrotze-Olhaibi herritik, San Eztebe elizako ezkila-dorre zuriaren inguruan bildua, Compostelako bidea:

- ◆ Edo herritik iragaten, da elizaren eta haren hilarri biribilen aitzinetik, eta Luis XIII.aren garaiko hareharrizko aitzinaldea duen Etxarriko jauregiaren aitzinetik;
- ◆ Edo bigarren mailako errepedetik iragaten da, gurutze batek seinalatzen duen bidegurutzera daramana eta XVIII. mendeko Joantho jauregira.


Bi kasuetan, bidexkak lur buztintsuko pentzeetara darama, euskal etxe tradizionalen artetik iraganez.

## Bista ederra Pirinioen gainera

Urrunera, ibiltariak mendi eta muino berde lerro bat miretsi dezake. Pentze natural ttipietan, belar gizenak Akitaniako blonda arrazaren zoriona egiten du; behi mota horrek bere piriniotar arbasoei zor die bere sendotasuna. Malda baten ondotik, bidexka haran hertsituz batean barna doa. Ura denetan dago firfirin: arroiletan, iturrietan, erreketan...

Haran hertsitik ateratzean, etxalde eta borda batzuek, gisuz zurituak edo harriak agerian, Olhaibirako sartzea seinalatzen dute. Erliebea zelai bilakatzen da, pentzeak Lauhiraze ibarxkara buruz irekitzen dira. San Justo kapera agertzen da han, zuri-zuria, teilatu bereizgarriarekin. Han hasten da Artxelara igaten den malda, mendi eta muino berdeen artean. Bista ederrak aldizkatzen dira. Mendi mazelan, bide luze batetik paisaia zabal bat ikus daiteke mendixka oihantsuen eta gain biluzien artean, Pirinioak gainaldean direla. Laster arboladiak hertsitzen dira, etxaldeak agertzen, bazkalekuz eta arto landaz inguratuz.

*Pirinioak bistan © AFCC JJ Gelbart*



Donapaleuko Chemins-Bideak guneari eta Baxenabarreko Museoari esker leku horien aniztasuna eta historia ulertu daiteke. Laster, Izurako herrian, paisaien eta ondarearen interpretazio gune batek argibide eta mediazio eskaintza osatuko du.





## Larribar eta Biduze zeharkatzea

Bentako haran hertsian, bidexka Larribarrera buruz adarkatzen da. Patar eta igoaldi segida baten ondotik, herrira heltzen da eta Biduzera buruz jausten, ur berde ohargarriarekin eta harrizko zubi zahar ederrarekin. Seinalatuak diren bidexketatik deskart, beilariak Biduze gainean iragaten den Kinkileko ibia miretsi dezake. Biziki aspaldikoa den harrizko pasabide zahar hori Nafarroako ibai-errekak oinez zeharkatzeko muntatu oinarritzko egituren lekukoa da.

## Compostelako hiru bideen gurutzean

Larribarrerren ondotik, bidea zelai bihurtzen da eta Xibaltarreko herrira heltzen, 1964an ezarria, Donapaleuko, Larribarreko eta Uhartehiriko mugan, sinbolikoki markatuz Compostelako hiru bide biltzen diren lekua, Izurara heldu aitzin: Puyko bidea (via Podiensis), Paris eta Tourseko bidea (via Turonensis) eta Vézelayko bidea (via Lemovicensis). Itzulinguru ttipi bat eginez, Donapaleuko San Salvatore mendixka ezagutu daiteke. Handik ikuspegi ederra bada Pirinioen gainera.



## Laster Izuran

Mendebaldean Ibarla ageri da, txaraz eta larrez estali eskistozko muinoa. Kaskoan, Soihartzeko kapera, Uhartehiriko herrian. Ama Birjinari eskainia zaion beila-leku horretan errogazioen prozesioak hartzen ziren. Gain hartarik paisaia zabala bada alde guzietarik; Pirinioak ikus daitezke, baita Amikuzeko eta Oztibarreko paisaiak ere. Izurako oihanera jaustean, Haranbeltzeko auzora heltzen da, desagertu ospitalearen inguruan eraikia, eta San Nikolas elizara (XI.mendea), donaten ondokoek kudeatua. Urre koloreko harriz egina da eta hirutako ezquila-dorrea badu zurezko aterpe batekin ezkilak jotzen zituenarentzat. Barnea XVII. mendeko margolan polikromoz apaindua da.

Itzulinguru baten ondotik Izura-Azmeko herria ageri da. Mendebaldean, herri gaina baino gorago San Joan eliza (XIX. mendekoa) bada, pilota plaza eta lehengo merkatu estalia. *Hiriberria* Erdi Aroan harresiz inguratua zen, herriaren ekialdean. Behereko aldean, *Hirizolan*, oraino beilariak errezibitzen dira Ospitalia etxean, lehengo San Antoni ospitalearen lekuan eraikia XIX. mendean. Auzo horretara heltzen da lehengo bide zilo harriztatutik, eta gero patarra iganez harresiraino. Haratago, karrika elizaraino doa, Larzabalera buruz eramaten, eta Donibane Garaziraino, Pirinioak iragan aitzin.

# MUNDUKO ONDAREA ZAINDU, — BERRITU, TRANSMITITU

Gaur egun, ondarea eta paisaiak aberatsak eta aniztunak baitira, Euskal Hirigune Elkargoak, dagozkien herriek (Baiona, Donibane Garazi, Ospitalepea, Arüe-Ithorrotze-Olhaibi, Lohitzüne-Oihergi, Larribarre-Sorhapürü, Domintxaine-Berroeta, Uhartehiri, Izura-Azme, Ostankoa, Behaskane-Laphizketa eta Donapaleu), Frantziako Estatuak, Pirinio Atlantikoetako Departamenduak eta tokiko partaideek hitzeman dute ondare natural eta kultural horren zaintzea eta balioan ezartzea; horretarako, 2022an onartu dituzte Munduko Ondarean sailkatu osagaien Tokiko Kudeaketa Planak.

Orientazio bide-seinalea © CAPB



2007az geroztik UNESCOk eskatzen duen dokumentua da, sorkuntza-askatasunari, arkitekturari eta ondareari buruzko 2016ko legeak zehazten duena. Tokiko Kudeaketa Plan hori norabide-dokumentua da baita ere ekintza-programa, balio unibertsal berezia atxikitzeko, horrek baitu Gizateriaren Ondarearen zerrendan izatea bermatzen. Programatu ekintzak ontasuna zaintzeko eginak dira baita ere bere garapen kulturala eta ekonomikoa manera iraunkorrean laguntzeko.



Tokiko Kudeaketa Planaren xedeak:

- ◆ ontasunaren zaintza eraginkorra bermatzea egungo eta biharko belaunaldientzat;
- ◆ gunea irakurterraza egitea (zaintzak, kontserbazioa, gobernantza eta eragileak, bitartekaritza eta turismo tresnak);
- ◆ eskasiak agerraraztea eta gunearen bilakaera antolatzea;
- ◆ proiektu partekatua sortzea, lankidetzeta bultzatzea eta ikuspegi komun baten inguruan elkarriketa etengabea sustatzea herri honetan bizi diren eta herria egiten duten biztanleak lotuz.



## Compostelako bideak ezagutu

Euskal Hirigune Elkargoak eta Euskal Herriko Turismo Bulegoak ibilaldi anitz proposatzen dituzte Jondoni Jakue bideei lotu herriak, lekuak eta gunek ezagutzeko. Maiz GR®78, 65, etab. bideen bidez seinalatuak dira.

Turismo Bulegoetan atzeman daiteke 4 gidaliburuko bilduma bat Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan gaindi ibilaldiak egiteko.

→ [communaute-paysbasque.fr](http://communaute-paysbasque.fr)  
→ [en-pays-basque.fr](http://en-pays-basque.fr)

Pirinio Atlantikoetako Departamenduak eta Ibilaldien Federazioak GR® bideak mantentzen eta kudeatzen dituzte. Eta parte hartzen dute ere Compostelako Jondoni Jakue bideak balioan ezartzen.

→ [cdrp64.com/sentiers-et-topoguides/les-gr](http://cdrp64.com/sentiers-et-topoguides/les-gr)  
→ [randonnee.tourisme64.com](http://randonnee.tourisme64.com)

## Ibilaldia behar bezala egin

Mendiak zentzu bila eta aire garbi bila dabilen jende anitz erakartzen du. Babestu beharreko lekua da, eta inportantea da arauen ezagutzea. Irakur itzazu segitu beharreko aholkuak:

→ [reussirmarando.com](http://reussirmarando.com)



→ Euskal Elkargoak euskal mendian ibiltzeko praktika onen gidaliburua argitaratu du.



# BIBLIOGRAFIA

**Chemins de Saint-Jacques-de-Compostelle en France, patrimoine de l'humanité kolektiboa, Compostelako Bideen Agentzia, Jean Jacques Gelbart argitaletxea, 2018;**  
—

**Le guide du pèlerin à Saint-Jacques, Michel Record, Sud-Ouest argitaletxea, 2006 (Codex Calixtinuseko V. liburuaaren itzulpen iruzkindu berria) – 1130);**  
—

**Les chemins de Saint-Jacques-de-Compostelle en 101 sites et monuments du sud-ouest, Festin aldizkariaren argitaraldi berezia, 2022ko martxoa;**  
—

**L'Hôpital-Saint-Blaise, Histoire, art et croyances sur les routes pyrénéennes du XII<sup>e</sup> au XXI<sup>e</sup> siècle, Robert Elisondo, Atlantica argitaletxea, 2009;**  
—

**Patrimoine jacquaire en Pays basque : 20<sup>e</sup> anniversaire, Euskal Museoaren aldizkaria, 2018ko 2. seihilekoa, 191. zk;**  
—

**Terre des basques, terre d'accueil, Clément Urrutibéhéty, Donapaleu: Jondoni Jakue Bidearen Adiskideen elkarte / Baxenabarreko eta Jondoni Jakue Bideen Adiskideen elkarte, 2009;**  
—

**Trésors de l'art roman en Pays basque, Maritxu Etcheverry, Kilika argitaletxea, 2021;**  
—

**"Approche exploratoire du patrimoine jacquaire" ikerketa txostena, Maritxu Etcheverry, Euskal Elkargoa, 2022.**  
—

Pirinioak bistan © AFCC JJ Gelbart



Soihartzeko kapera © AFCC JJ Gelbart

# GLOSARIOA

## **Codex Calixtinus (Compostelako katedralean atxikia)**

Jondoni Jakueren kultuari, mirakuluei, translazioari eta beilari buruzko testu multzoa. Karlomagnoen eta Errolanen historia ere kontatua da, omen Turpin Reimseko apezpikuak idatzia (komunzki Pseudo-Turpin deitua).

## **Compostelako beila**

Giristinotasunaren beila handienetan hirugarrena da Compostelakoa eta IX. mendeaz geroztik Galiziaraino darama, Espainiako ipar-mendebaldera, 12 apostoluetarik baten hobira: Jondoni Jakue, Joan Ebanjelariaren anaia. 830. hamarkada hastapenean zen Jakue apostoluaren hobia "asmatu", Galiziako Iria apezpiku egoitzatik ez urrun. Berria laster hedatu zen.

## **Lepo**

Bi mendiren arteko pasabidea

## **Nizeako Kontzilioa**

Nizean (egungo Iznik, Turkian) 325ean iragan Erromatar Inperioko apezpikuen kontzilio nagusia, Konstantino I.a Handiaren gerizan antolatua.

## **Pordoi**

Makila luzea, sagar itxurako edergailua-rekin gainean, usaian beilariak bidaian eramaten zutena

## **Priore-etxe**

Priore-etxe bat priore baten aginte pean ezarri monasterioa zen. Independentea izan zitezkeen edo abadia handiago baten menpeko ezarria, eta orduan priorea abadearen menpeko zen.

## **Zakuto**

Erditik irekia zen zaku luzea, bi puntak sakela gisa erabil zitezkeen



## **Argibide gehiago ukaiteko**

◆ **Compostelako Bideen Frantziako Agentzia**  
[chemins-compostelle.com](http://chemins-compostelle.com)

◆ **Terres de Navarre elkarte**  
[terresdenavarre.fr](http://terresdenavarre.fr)

◆ **Lapurдум AOIZA (Arkitekturaren eta Ondarearen Interpretazio Zentroa)** [bayonne.fr](http://bayonne.fr)

◆ **Ospitalepeko eliza**  
[hopital-saint-blaise.fr](http://hopital-saint-blaise.fr)

◆ **Chemins-Bideak gunea**  
[chemins-bideak.com](http://chemins-bideak.com)

◆ **"Apezpikuen presondegia", Donibane Garazi**  
[st-jean-pied-de-port.fr](http://st-jean-pied-de-port.fr)

◆ **Baionako Euskal Museoa**  
[musee-basque.com](http://musee-basque.com)

◆ **Pirinio Atlantikoetako Jondoni Jakue Bidearen Adiskideak**  
[aucoeurduchemin.org](http://aucoeurduchemin.org)

◆ **Baxenabarreko Museoren Adiskideak**  
[amis-musee-basse-navarre.fr](http://amis-musee-basse-navarre.fr)

◆ **Euskal Herriko Turismo Bulegoa**  
[en-pays-basque.fr](http://en-pays-basque.fr)

◆ **Baionako Turismo Bulegoa**  
[visitbayonne.com](http://visitbayonne.com)

# MUNDUKO ONDAREAREN — ITUNA

**“Gerlak gizakien buruan sortzen dira. Gizakien buruan eraiki behar dira bakearen defentsak.”  
(Ellen Wilkinson, UNESCOren biltzar eratzaillea)**


Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) mundu osoko ondare naturalaren eta kulturalaren identifikazioa, geriza eta zaintza sustatzen du, gizon-emazteentzat balio unibertsal berezia baitu. Nazioarteko itun baten gaia da, “*Munduko Ondare Kulturala eta Naturala Zaintzeko Ituna*” izenekoa, UNESCOk 1972an onartua.

“Balio Unibertsal Bereziaren kontzeptua, Munduko ondarea oinarritzen duena, ideia honen gainean finkatua da: ontasun batzuek garrantzia kulturala edota naturala hain dute berezia non muga nazionalak gainditzen dituen eta gaurko eta biharko belaunaldientzat ezin estimatuzkoa den. Horretarako, izigarri inportantea da nazioarteko komunitatearentzat ondarea gelditu gabe zaintzea.

Batzordeak Munduko Ondarearen zerrendan izateko baldintzak finkatzen ditu (*Munduko Ondarearen Ituna obratzeko norabideak*, UNESCO).

Zerrendan izateko, ontasun natural bat (naturak egina) edo kultural bat (gizon-emazteek egina), eta batzuetan biak batean, irizpide batzuen arabera izan behar da. Irizpide horien bidez bere balio unibertsala zer den defini daiteke.





# ONDARE MATERIALAK — ETA IMMATERIALAK

**Ondarea gaur egun gozaten dugun iraganeko ondoriotasuna da, eta ondoko belaunaldiei transmitituko dieguna.**

Herralde guziek dituzte tokiko edo nazio mailako interesa duten guneak, eta, zuzen den bezala, harrotasun nazionala pizten dutenak. Horien artean dira munduko ondarea osa lezaketen guneak hautatzen, ondare kultural eta naturalaren adibide ezin hobekoak baitira.

Ikur batek seinalatzen ditu, munduko aniztasun biologikoaren eta kulturalaren interdependentzia erakusten duena. Erdiko laukiak gizon-emazteen gaitasunen emaitza sinbolizatzen du eta zirkuluak, naturaren eskaintzak. Ikurra borobila da, mundua bezala, gizateriaren ondarerako babes orokorraren sinbologia.

Baina erritualek ere osatzen dute ondarea, praktika artistikoei, trebetasunek... Ondare kultural immateriala da. Ondare molde hori UNESCOk babesten du 2003an onartu hitzarmen bati esker, tradizio biziak identifikatzea eta iraunaraztea xedetzat duena. Ondare horrek bere ikurra badu, ikuspen gehiago emateko.

Beraz, hitzarmen baten edo bestearen kariatara, sinesmen mota desberdinetako beilei lotu gune, eraikin edo erritual anitz, baita ere bide mitiko handiak, babestuak dira munduko ondarearen kariatara.

# ERROMESALDIEN ETA GIZATERIAREN — BIDEEN FAMILIAN

**“Frantziako Compostelako Jondoni Jakue bideak” ontasuna familia handi bati lotua da. Honek, gune sakratuak, erritualak edo zirkulazio-bide handiak biltzen ditu, nazioarteko hitzarmen batek edo besteak babesten dituenak.**

Horien artean, gune eta praktika franko bada, hala nola “Qhapaq Ñan, Andeetako bide sarea” (2014) Hego Amerikan; “Lumbini, Budaren sorlekua” (1997), Nepalen, budismoaren leku saindu nagusietako bat; “Efeso” (2015) Turkian, non Antzinarotik beilak egiten diren; “Arba’inen bisita-denboran eskaini zerbitzuak eta ostatu ematea” (2019), Iraken, Karbala hiri saindura joaten direnei; edo “Limousin eskualdeko zazpiurteko ostentsioak” (2013), sekulako zeremoniak eta prozesioak dira Limousin eskualdeko elizetan atxiki sailduen erlikiak erakusteko eta ohoratzeko antolatutak.

Bereziki aipatzekoak dira Japoniako “Kii mendizerrako toki sakratuak eta erromes bideak”, 2004an sailkatuak. Hiru toki sakratu dira, oihan trinkoen erdian kokatuak, Ozeano Barearen gainaldean diren mendietan, oinez egiten den ibilbide batek lotuak. Mila berrehun urteko tradizio bizia da, Japoniako sintoaren (naturaren gurtzaren antzinako tradizioa) eta Txinatik jin budismoaren arteko elkarketa.

Azkenik, aipa ditzagun “Compostelako Jondoni Jakue bideak”: Frantses bidea eta Espainiako iparraldeko bideak”, 1993an sailkatu ontasuna eta 2015ean zabaldua; frantses ontasuna Pirinioetako beste aldeko bidearen luzapena da.





Bourges



L'Épine



La Charité-sur-Loire



Nasbinalseko bidea, Saint-Chély-d'Aubracen



# BALIO UNIBERTSAL BEREZIKO ONTASUNA

Erdi Aroan, Compostelako Jondoni Jakuera joaten ziren Europako beilari anitz eta anitz. Espainiara heltzeko, beilariak Frantzia zeharkatzen zuten. Lau bide sinboliko badira Parisetik, Vézelaytik, Puy-en-Velaytik eta Arlesetik partitzen direnak eta Pirinioak zeharkatzen dituztenak, eta badira ere beilariak pasatzen ziren beste bide franko. Beilarako elizak edo saindutegi soilak, ospitaleak, zubiak, bideko gurutzeak badira bide horietan zehar, eta erromesaldiaren alde izpirituala eta materiala irudikatzen dute.

Beila praktika izpirituala da eta fedearen adierazpena, baina mundu profanoa ere hunki du, ideien eta arteen sortzean eta zirkulazioan eginkizun erabakigarria ukan baitu.

Saindutegi handiak badira, hala nola Okzitaniako Tolosako San Saturdi basilika edo Amiensko katedrala –batzuk Codex Calixtinusean aipatuak dira–, eta beste osagai batzuek materialki erakusten dute mendeetan zehar beilaren bideak eta baldintzak zein izan diren. Beilari lotu hirurogeita hamaika osagai hautatu dira haien aniztasun geografikoa erakusteko, baita ere XI. eta XV. mende arteko garapen kronologikoa eta arkitekturaren funtsezko funtzioak, adibidez, Ponseko beilarien ospitalea edo Boralde gaineko “beilarien” zubia.

Gainera, Puyko bidearen zazpi zati ere sailkatuak dira, hots, 160 bat kilometro.

# UNESCOREN BALDINTZAK

**(II) Baldintza: erakustea aldi jakin batean edo kultura-eremu jakin batean eragin handia izan duela arkitekturaren edo teknologiaren garapenean, monumentu-artearen garapenean, hirien plangintzaren edo paisaien sortzearen garapenean.**

Compostelako Jondoni Jakue beila-bideak funtsezko eginkizuna ukan du Behe Erdi Aroko erlijio eta kultura trukadetan eta garapenean, beilariek segitzen dituzten Frantziako bideetan barna artoski hautatu monumentuek erakusten duten bezala.

**(IV) Baldintza: gizateriaren historiako aldi adierazgarri bat edo batzuk erakusten dituen eraikuntza mota baten edo arkitektura edo teknologia multzo baten edo paisaia baten goi-mailako adibidea eskaintzea.**

Compostelako Jondoni Jakuera zihoazen beilarien behar izpiritualak eta fisikoak ase ziren eraikin berezituak

eraiki zirenean; horietarik anitz frantses bideetan eraiki ziren edo berantago garatu.

**(VI) Baldintza: zentzu unibertsal berezia duten gertakariekin, tradizio biziak, ideiekin, sinismekin edo arte eta literatura lanekin zuzenki edo materialki loturik izatea.** Compostelako Jondoni Jakue beila bideak ederki erakusten du Erdi Aroan giristino fedeak klase sozial guzietan eta Europako Herrialde guzietan zuen boterea eta eragina.



Amiens



Le Puy-en-Velay



Bordele



Saint-Gilles

 Bidexka antolatutak

 Monumentuak, multzoak

 Bidexka-zatiak

- 1 Nasbinals (Lozère) Saint-Chély-d'Aubracen (Aveyron): 17 km
- 2 Saint-Côme-d'Olt Estaingen (Aveyron): 17 km
- 3 Montredon Figeacen (Lot): 18 km
- 4 Faycelles Cajarcen (Lot): 22,5 km
- 5 Bach Cahorsen (Lot): 26 km
- 6 Lectoure Condomen (Gers): 35 km
- 7 Arüe Izura-Azmen (Pirinio Atlantikoak): 22 km



**BAIONA**  
Andre Maria katedrala

**DONIBANE GARAZI**  
Jondani lakue atea

**OSPITALEPEA**  
Saint-Blaise Eliza

Lepoeder lepoa (1430m)

**MONT-SAINT-MICHEL**  
Mont-Saint-Michel

**AMIENS**  
Notre-Dame katedrala

**PARIS**  
Saint-Jacques de la Boucherie elizaren handakina

**CHALONS-EN-CHAMPAGNE**  
Notre-Dame-en-Vaux eliza

**L'EPINE**  
Notre-Dame basilika

**Paris eta Tauseko bidexka**

**POTTIERS**  
Saint-Hilaire eliza

**NEUVY-SAINT-SEPULCHRE**  
Saint-Etienne kolegiata (harroko Saint-Jacques kolegiata)

**ASQUINS**  
Saint-Jacques eliza

**VEZELAY**  
Sainte-Madeleine basilika

**BOURGES**  
Saint-Étienne katedrala

**LA CHARITE-SUR-LOIRE**  
Sainte-Croix Notre-Dame priore eliza

**MELLE**  
Saint-Hilaire eliza

**AULNAY**  
Saint-Pierre eliza

**SAINT-JEAN-D'ANGÉLY**  
Saint-Jean-Baptiste erregio-abadia

**SAINTES**  
Saint-Etienne eliza

**SOULAC-SUR-MER**  
Notre-Dame-de-la-Fin-des-Terres eliza

**PONS**  
Beaumont-les-Bains ospitalea

**SAINT-LEONARD-DE-NORLAT**  
Saint-Leonard eliza

**CLERMONT-FERRAND**  
Notre-Dame-de-Paris eliza

**PERIGUEUX**  
Saint-Front katedrala

**BUISSON DE CADOUIN**  
Notre-Dame-de-la-Sacrité abadia eliza

**CONQUES**  
Sainte-Foy abadia / Durolou igaroko zubia

**LE PUY-EN-VELAY**  
Notre-Dame katedrala / Hotel-Ober

**BAIONA**  
Andre Maria katedrala

**LA SAUVE**  
Lelienha Notre-Dame-de-la-Sainte-Magarene abadia / Saint-Pierre eliza

**SAINT-AVIT-SENIEUR**  
Saint-Avit eliza

**ROCMADOUR**  
Saint-Sauveur basilika / Saint-Amadaur kriptak

**FIGEAC**  
Saint-Jacques ospitalea

**ESTANG**  
Lot gaineko zubia

**SAINT-CHÉLY-D'AUBRAC**  
Orreale gaineko "belesaren" zubia

**CAHORS**  
Saint-Etienne katedrala / Valenbre zubia

**GREALOU**  
Pech-Lagatareko trikulharria

**ESPALION**  
Saint-Vincent eliza

**AGEN**  
Saint-Caprais eliza

**MOISSAC**  
Saint-Pierre abadia / Inostrak

**ARLES**  
Saint-Trophime eliza

**SAINT-GILLES**  
Lectoure abadia

**DONIBANE GARAZI**  
Jondani lakue atea

**OSPITALEPEA**  
Saint-Blaise Eliza

Lepoeder lepoa (1430m)

**AUCH**  
Sainte-Marie katedrala

**TULOUSE**  
Saint-Sernin basilika / Hotel-Dieu Saint-Jacques

**ARLESKO BIDEXKA**

**ANIANE / SAINT-JEAN-DE-FOS**  
Deburuaren zubia

**BERTRAND-MINGES**  
Notre-Dame katedrala / La palaeo-kristoa / Saint-Jacques kopera

**VALCABRÈRE**  
Saint-Just basilika

**SAINT-GUILHEM-LE-DESERT**  
Gailenka bilaboko abadia

**JEZEAB**  
Saint-Jacques eliza



**SAINT-LIZIER**  
Lectoure katedrala / Kalostira / Notre-Dame-de-la-Sole katedrala / Apezpikua jauregia / Harresiak

**ARAGNOUET**  
Ospitalea eta Notre-Dame-de-Francisca kopera

**Pirinioetako oinetako bidexka**

**ARAGNOUET**  
Ospitalea eta Notre-Dame-de-Francisca kopera

**SAINT-LIZIER**  
Lectoure katedrala / Kalostira / Notre-Dame-de-la-Sole katedrala / Apezpikua jauregia / Harresiak



[cheminscompostelle-patrimoine mondial.fr](http://cheminscompostelle-patrimoine mondial.fr)



Organisation  
des Nations Unies  
pour l'éducation,  
la science et la culture



• Chemins de Saint-Jacques-  
de-Compostelle en France  
• inscrits sur la Liste du  
patrimoine mondial en 1998



Agence française  
des chemins  
de Compostelle

